



***RASFF TXOSTENA- ALERTAK ETA  
JAKINARAZPENAK ELIKAGAIETAN***

*2011ko 2gn LAUHILEKOA*


**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2011ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 906 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUAK	ZENBATEKOAK
Mikotoxinak / biotoxinak	% 17
Kutsadura kimikoa	% 9,5
Kutsadura biologikoa	% 21
Metal astunak	% 6
Hondakinak	% 197,5
OGMak	% 1
Kutsadura fisikoa	% 3
Iruzurrak	% 10,5
Produktua gaizki kontrolatuta	% 14,5




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 75an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 53,5eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 47) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren lekua oso banaturik dago: **pistatxoa**, **espeziak** eta **urrak** kopuru berdintsuetan.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren % 32 eragin ditu. Alerta gehien eragin dituztenak (% 34) **belar aromatikoak** izan dira, ia denak **asiarrak** izanik (%67) eta **oilategiko-hegaztiak** hauen atzean agertzen dira, %26,5an eta **Brasilgo jatorrikoak** %50ean. **Anisakis simplex** parasittoa, bigarren postuan azaltzen da %24,5an. **Legatza** da produktua kasuen %34an eta **Espania** jatorria haien %44an.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Gehigarriak eta Koloratzaileak** dira eragile nagusi (kasuen % 55) eta ez dago produktu nabariagorik.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	156	Aflatoxinak	117(75%)	kakahueteak	62(54,5 %)	Asia	35 (49%)
Kutsadura biologikoa	191	Salmonella sp.	61 (32%)	oilategiko hegaztiak	18(34%)	Asia	14(82%)
				belar aromatikoak	14(26,5%)	Brasil	11(91,5%)
		Anisakis simplex	47(24,5%)	legatza	16 (34%)	Espainia	4 (57%)
				txipiroia	10(21,5%)	Zelanda B.	7 (100%)
Kutsadura kimikoa	84	Koloratzaile eta gehigarriak	46 (55%)	espeziak, saltsak	ez dago produktu nabariagorik		
				goxokiak,ozpinetakoak	besteak baino		
Hondakinak	157	Pestizidak	106 (67,5%)	barazkiak	86(81%)	Asia	65 (64%)
		Medikamentuak	51 (32,5%)	behi haragia	17 (33,5%)	Brasil	12 (70,5%)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:



Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 28,5 Txinakoak dira, jarraian **Turkia** dugu: kasuen % 27. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Alemania** izan da, % 13arekin. Afrikaren kasuan, **Marokok** jakinarazpenen %22 izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEB** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% 29a), **Brasilek** jarraian dagoelarik %26arekin.

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- **Mikotoxinek** eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **jeitsiera**, %22tik % 17ra pasatuz.
- **Kutsadura kimikoak** eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **jeitsiera**, %14tik % 9,5ra pasatuz.
- **Kutsadura biologikoak** eragindako jakinarazpenen portzentaiaren **igoera**, %15tik % 21era pasatuz.
- **Aflatoxinek** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **jeitsiera**, 188tik 117ra pasatuz.
- **Gehigarriek** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **jeitsiera**, 72tik 46ra pasatuz.
- **Pestizida hondakinek** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **jeitsiera**, 142tik 106ra pasatuz.
- **Anisakis simplexak** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **igoera**, 30tik 47ra pasatuz.
- **Salmonellak** eragindako jakinarazpenen kopuruaren **igoera**, 42tik 61ra pasatuz.

